

EKOJAN

Balio proposamena

Gure enpresa ingurumena babesten laguntzeko edota horretarako interesa duten pertsoneri zerbitzu bat emateko helburua duen jatetxe ekologiko bat da. Zero kilometroko produktu ekologikoak erosiko ditugu, produktu kimikoak erabiltzen ez dituzten hornitzaileei. Adibidez, elikagaiak, *Ecofood*, enpresari produktu % 100 ekologikoak erosiko diegu.



Material gehiena ekologikoa izango da, hau da, berziklagarria, adibidez; eramateko edalontziak, platerak, ahozapiak eta kotoizko oihalezko edo erabili eta botatzeko materialezko mahai-zapiak... Eta eskaerak bizikleta elektrikoetan doazen banatzaileak eramango dituzte, erregaiaren kontsumoa murrizteko.



Gure jatetxeak naturako gaia jorratuko du, kalitatezko material arinak eta errazak erabiliz, elementu ekologikoak erabiliz, hala nola, egurra eta banbua. Udan eta neguan irekita egongo den tezarra bat izango du. Erosoago izateko, hotzetik eta euritik isolatzen duten kristalak jarriko ditugu terrazaren inguruan.

Gure jatetxeak eskaintzen dugun kalitatearen antzeko prezioak izango ditu eta ahalik eta erosotasun gehien izango ditu, jendeak nahiago izan dezan lokal hau beste batzuen ordean.

Amaitzeko, gure jatetxea erabat ekologikoa izango da kalitate handiko elikagai osasungarriekin, terraza zerbitzuarekin eta etxez etxeko banaketarekin.